

EGUNKARIAREN INGURUKO BIZIPOZAK

KARMEL aldizkarikoek EUSKALDUNON EGUNKARIA kasuaz artikulu bat idazteko eskatu didate. Hasieratik gaur arte gertatutakoak eta bizi izandakoak azaltzeak luzeegi joko lukeela iritzirik, hauxe erabaki dut: alde batetik, kasua zertan datzan gogora ekartzeko zenbait datu aipatzea eta, bestetik, azken hilabeteotan –Madrilgo Audiencia Nacional delakoan epaiketa hasi eta egun arte– egindako gogoeta eta bertan bizi izandako zenbait sentipen jasotzea.

1. Zertan datza EGUNKARIA kasua?

1.1. Auzi nagusia edo sumarioa

2003. urteko otsailaren 20an hasi zen guretzat “dena”, guardia zibilak urte batzuk lehenago lanean ari baziren ere. Orduan 10 lagun eramán gintuzten atxilo eta EGUNKARIA itxi zuten, bai Andoaingo egoitza nagusia bai beste egoitzak (publizitatekoa Donostian, Bilbokoa, Gasteizkoa eta Iruñekoa) ere. Inkomunikaturik egondako 5 egunetan tratu txarrak eta torturak salatu genituen zenbait lagunok*. Ondoren espetxera bidali gintuzten 5 eta beste bat, Pello Zubiria, ospitalean utzi

* Honetaz gehiago jakin nahi duena T.A.ren idazkia irakur dezake.

zuten egoera larrian. Eta besteak libre, bermea ordaindu ondoren. Inkomunikaturik geundela, Euskal Herrian gure aldeko lehendabiziko keinua egin zuten milaka eta milaka herritarrek: Donostian inoiz egin den manifestaldirik jendetsuena.

Del Olmo epaileak itxiarazi zuen EGUNKARIA guardia zibilen eskaria onartuz eta haxe izan da gure kontrako salaketa: ETakide izatea eta egunkaria ETaren zerbitzuan jartzea. Hasierako fiskalak bere egin zituen salaketa hauek, baita Herri salaketa aurkeztu zuten “Dignidad y Justicia” eta “Asociación de Víctimas del Terrorismo” elkarteek ere. Inoiz ez da gure kontrako salaketa partikularrik izan. Beranduago, 2006. urtean, fiskal berriak (Carballok) kasua artxibatzea eskatu zuen, gure kontrako froga sendorik ez zegoela argudiatuz. Del Olmo epaile instruktorea, guardia zibilak eta berriki aipatu bi elkarteak izan dira gure kontrako protagonismoa guztiz berenganatu dutenak.

Auzi nagusi honetan 5 gara auzipetuok: Joan Mari TORREALDAI (Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko Lehendakaria), Txema AUZMENDI (Administrazio Kontseiluko Idazkaria), Iñaki URÍA (Egunkaria SAko Kontseilari Ordezkarria), Martxelo OTAMENDI (Euskaldunon Egunkariako Zuzendaria) eta Xabier OLEAGA (Euskaldunon Egunkariako Zuzendariorde ohia). Zer eskatzen dute gure kontra “Herri salatzaileek”? 14na urteko espetxealdia eta 15nako inhabilitazioa.

1.2. Auzi ekonomikoa edo prozedura laburtua

EGUNKARIAREN kontrako 2. operatiboa –hau ere guardia zibilek egindakoa– 2003. urteko urrian gertatu zen: orduan Del Olmo instrukzio-epaileak sumarioa edo auzi nagusia bitan banatu zuen eta 2007.ean bultzada erabakigarria eman zion, 3 lagun gehiago inputatuz eta auzi hau epaiketa bidean jarritz.

Auzi honetan ere ez dago salaketa partikularrik gure kontra, bai ordea Herri salaketa deritzana (“Dignidad y Justicia” elkar-tearena) eta fiskalarena, honek bat egin baitu DyJ delakoak es-

katutakoarekin, baina epaiketa Audiencia Nacionalean egin beharrean Tolosako epaitegian –“epaitegi naturalean“– egitea eskatu du, auzi nagusiak ez baitu, bere iritziz, inolako ustezko delitu terroristarekin zerikusirik.

Gauza bitxia dago auzi honetan: ustezko delitu ekonomikoek, EGUNKARIA SAK egindakoek, harreman edo lotura zuzena dute erakunde hauekin: Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Bada, ez bata ez besteak ez dute inoiz EGUNKARIAren kontrako deus aurkeztu. Nolatan, bada, eman segida epaileek auziari?

Auzipetuok 8 gara: aurrekoan agertzen diren Joan Mari T., Txema A. eta Iñaki U. hirukoteaz gainera, Jose Mari SORS (Administrazio Kontseikukidea), Ainhoa ALBISU (Administrazioko langilea EGUNKARIAren), Mikel SOROZABAL (Administrazioko langilea), Begoña ZUBELZU (Administrazioko langilea) eta Fernando FURUNDARENA (Administrazioko langilea).

Eta gure kontra eskatzen dena, hauxe: 26na urteko espetxe-zigorra eta ia 33na milioi euroko isuna zerrendako lehen 5entzat (J.M. TORREALDAI, T. AUZMENDI, I. URIA, J.M. SORS eta A. ALBISU), ia 22 urteko espetxe-zigorra eta 27 milioi euroko isuna Mikelentzat, 17 urteko espetxealdia eta 21'5 milioi euroko isuna Begoñarentzat eta, azkenik, 13 urteko espetxealdia eta 21 milioi euroko isuna Fernandorentzat. Agian, irakurle, hau guztiau irakurtzean, zure buruari itaun hau egingo diozu: zergatik dira eskariak auzi honetan askoz handiagoak aurrekoan, alegia auzi nagusian, baino? Guri ere sarri etorri zaigu galdera hau burura, baina ez dugu orain arte erantzunik aurkitu. Ez, behintzat, gure logikari dagokionik.

7 urte joan dira gutako batzuentzat erokeria, zabarkeria eta bidegabekeria sinesgaitz hau hasi zenetik. Behin-behineko neurriak (funtsean: EGUNKARIA itxi, guardia zibilek eskuartean gure kontrako froga sendoagorik izan arte) behin-betiko bihurtu dira, eta EUSKALDUNON EGUNKARIA kitto: guk pasa-

takoaz aparte, langile mordoa kalean, lanik gabe, zenbait enpresa zerraturik, akziodunak kalteturik, irakurle mordoa euskal egunkaririk gabe e.a. Kalte-ordainik izango al da hauentzat guztientzat? Espainiako Audiencia Nacional delakoan zuzentasunik balego, kalte izugarri hau nolabait arintzen edo biguntzen zerbait egin beharko lukete.

Niri dagokidanez, behintzat, fede “handiegia” eskatzea litza-teke holako zeredozer epaitegi horretatik espero izatea. (Honek, alegia EGUNKARIArekin gertatutakoak, galdera gehiago sorrarazten ditu euskal herritarren zenbait eskubideren arduraz: nork babestuko gaitu geure espainiar “babesleengandik”? Nork eutsiko dio adierazpen askatasunari? Nor izango da guardia zibil, espainiar polizia eta abarren tratu txar, umiliazio eta torturetatik libratuko gaituena epaileak ez badira? Nork eseraziko ditu akusatuen aulkietan guri torturak eta tratu txarrak eragin zizkiguten guardia zibil haiek eta guztiari bizkar eman eta baimendu zuen Del Olmo epailea?. Jarrai al dezakegu –kontzientzia etikoaren izenean ari naiz, noski– holako bidegabekeriak baimentzen eta ezkututzen dituen sistema politiko-juridikoaren barruan? Noiz arte eta zeren truk? ...)

2. Auzi nagusiari edo sumarioari dagokion epaiketa amaitu da. Eta orain, zer?

Iazko Abenduaren erdialdean hasi zen auzipetuon adierazpenekin 44/04 sumarioari dagokion epaiketa Madrilgo Audiencia Nacional “ospetsuan” eta aurtengo Otsailaren 1ean bukatu da leku berean auzipetuon hitzekin. Eta orain, zer? Bada, orain epaiaren zain gaude, gauzak oso ondo joan zirelako pozik, baina, aldi berean, Audiencia Nacional honetaz fio ez garenez, urduri. Dagoeneko joan da epaileburuak epaia ezagutarazteko denbora –epaileak 10-15 eguneko epea esan zigun epaiketa amaitzean– eta berriki jakin dugu ebazpena beste bizpairu asteko atzerapenaz helduko zaigula, etxez aldatzen ari omen dela-eta.

2.1. *Itxaropena eta baikortasuna edo optimismoa.*

Ni guztiz itxaropentsua izan naiz lehen egunetik guri egindako bidegabekeria hau dela-eta. Ez dakit ez noiz eta ez nola, baina justizia noizbait egingo zaigula sinetsirik nago, erabat. Nola bizi bestela pozik, gorrotorik gabe, mendeku-goseak harrapatzeke, beste askori (Euskal Herrian eta kanpoan) egindako bidegabekeriei begira eta lagundu guran, mundu zuzenagoa eta gizatiarragoarekin amesten eta bere alde lan egiten? Besterik ere bada: kontzientzia lasai eta trankilaz lo egitea eta bizi izatea. Lasai-lasai eta ozenki esan dezaket: Inputatuok inoiz ez gara ETakideak izan eta EGUNKARIA inoiz ez da ETaren zerbitzuan izan. EGUNKARIA sortzea eta bizirautea ahalegin zoragarria izan da eta merezi izan du, guri 7 urteotan egindako bidegabekeria oroz gain. Inoiz ez naiz damutu sasoi hartan euskarren eta Euskal Herriaren alde egindako lan ederraz eta EUSKALDUNON EGUNKARIA martxan ipini izanaz. Ondoan izan ditudan lagun berberekin –eta joan direnekin: Martin UGALDE, Joxemi ZUMALABE, Joseba JAKA, Luis GOIA eta abarrekin– bide beretsuetatik ibiltzeko prest nengoke gaur egun ere, poz-pozik eta ilusio ikaragarriaz.

Epaiketa bukatu arte, berriz, ez naiz baikor edo optimista izan. Edo pixkat bai, baina gutxi, ez bainintzen fiskalaren jarreraz fidatzen. Orain, bai, fiskalak bere jarrerari tinko eutsi dio hasieratik amaiera arte eta 5 auzipetuon askatasuna edo absoluzioaren alde egin du inolako dudarik gabe. Ez dakit beste noizbait gertatu ote den holakorik Audiencia Nacional delakoan! Ba al dakizu, irakurle, nolako zirrara eragin zidan guardia zibilak artega ikusteak, fiskalak egiten zizkien zenbait itaunen aurrean? Inoiz ikusi al dute –galdetzen nion ene buruari egoera hartan– guardia zibilek euren burua urduri fiskalak egindako galderengatik? Fiskala bere lana egiten ari zen. Besterik ez. Baina niri –eta badakit beste batzuei ere– txaloak jotzeko gogoia etorri zitzaidan. Ez nuen/

genuen egin bere beharra ari zelako betetzen eta euskal herritarrekin horrenbeste bidegabekeriaren testigu izan den Audiencia Nacional-ean aurkitzen ginelako, baina zuzen jotkatzen saiatzen den pertsona txalotzea ez dut uste bekatu denik. Inola ere ez.

Bestalde, badut baikor izateko beste arrazoi handi bat: gure abokatuak egindako lan ederra eta elkarren osagarria. Lehenengoak gure epaiketaren markoa, nolazbait esan, ipini zuen eta ondoren bere bezeroaren defentsa sutsu eta argitsua egin zuen. Nire abokatuak –lehen erakunde hartako fiskala izandakoak– honela hasi zuen bere berbaldia: “Zuek ongi ezagutzen duzue nire ibilbidea eta badakizue nire bezeroa ez nukeela defendituko ETAkidea dela edota ETArekin zerikusia izan duela jakingo banu.” Eta aurrerago eginez hauxe bota zuen: “Epaiketan zehar inoiz ez da hautsi errugabetasun presuntzioa! Bost auzipetuok zorte txar hau izan dute: euren izenak edota eurek EGUNKARIAN egindako lana agertu dela ETAREN paper batzuetan. Besterik ez!” Ez dakit abokatu honek epaiketaren hasieratik 5 auzipetuz iritzi bera zuen, alegia guretariko inork ez zuela ETArekin zerikusirik izan EGUNKARIAREN historia osoan. Hasieran ez bazuen, bukaeran behintzat garbi azaldu zuen gu guztion aldeko portaera garbia, gu denok defendituz eta ez neu bakarrik. Hitzarta hartu zuen azken abokatuak maisu-lana egin zuen: lehenik, 10 puntuko argazki eder eta ikusgarrian EGUNKARIA kasua bere gordinen jarri zuen han geundenon aitzinean, “prozesu inquisitoriala” izan zela nabarmenduz eta, bigarrenik, bere bezeroen –eta sarri askotan beste hiruron defentsa zoragarria eta hunkigarria burutuz. Hiru epaileei begira nengoela, garbi ikusi nuen haien interesa entzuten zutenaren aurrean, idatzi eta idatzi ari baitziren tai gabe. Auzipetu lagun batek horrela esan zidan: “Epaileburuak epai erdia idatzi dik abokatu honi entzunda!” Hala bedi!

2.2. *Espainiako Audiencia Nacional delakoan bizi izandako sentipen garrantzitsu bi*

Batetik, guardia zibilak ikusi eta entzun ondoren, hauxe sentitu dut: zigorgabetasun edo inpunitate-kontzientziaz jokatzeko dutela. Hau begi-bistan jartzeko adibide xume bat baino ez dut aipatuko hemen. Operatiboburu izandakoak honako hau esan zuen nitaz (erdaraz, noski): “Gizon hauek nolakoak diren ikus dezazuen, kontutxo bat besterik ez dizuet esango. Jose M^a Auzmendi urtetan izan zen Administrazio Kontseiluko Idazkaría. Bada, urte horietan denetan ETAREN komisario bat izan zen beti Administrazio Kontseiluaren bileretan. Bada, Auzmendi jaunak inoiz ez du presentzia horretaz ezer esan, ez-ta protestarik egin ere. Alegia, bere portaerak garbi azalarazten du Administrazio Kontseiluaren bilera haiek antzespren hutsa zirela, onartu egiten baitzu(t)en komisarioaren presentzia eta, horrenbestez, Kontseilua bera ETAREN zerbitzuan zegoela”. Gezur borobila! Gezur beldurgarria, inoiz ez baitzen gure Administrazio Kontseiluaren bileretan ETAREN izenean inor izan, ez komisariorik ez bestelakorik. Fiskalak puntu honetaz egin zion galderak (“Zuk lehen hau eta hau esan duzu Auzmendi jaunaz. Hori horrela izan dela adierazteko zer froga duzu?”) eta komandantearen ondoko erantzunak (.....), ISILTASUNAK alegia, garbi laga zuten guardia zibil haren lekukotasunaren baliorik eza, gezur borobila bota baitzuen inolako kezka eta urduritasunik batere gabe. Fiskala “gure alde” egon ez balitz, zer gertatuko zen? (Galdera honek, gure herritar askok Audiencia Nacional horretan aurkitu (eta aurkituko) duten giroaz arduratzera bultzatzen edo eramaten nau. Kezkatzeko eta izutzeko moduko giroa, inolako zalantzarik gabe! Nola egin diezaiokegu aurre holako errealitateari?

Bigarren sentipenak lotura estua du lehengoarekin: defentsiorik eza. Abokatuak izan ditugu, abokatu on-onak eta oso ezberdinak. Hortaz, defentsa dela-eta, honek ez dit goian aipaturiko sentipena sortu. Zerk ordea? Guardia zibilen prepoten-

tziak! Honek, batez ere, eta baita fiskalaren balizko portaera kontrakoak. Beste hitzetan: fiskalak bat egin izan balu guardia zibilen eta DyJ eta AVT elkarteekin, nolako egoera psikikoan aurkituko ginatke gu orain?

2.3. Ez nuke inola ere idazki hau amaitu nahi gure auzian “Herri salaketa”ren ordezkaritza izan duten “Dignidad y Justicia” (DyJ) eta AVT elkarte edo taldeez zerbeit esan barik. Euren izenean aritu diren abokatuak gogorak baino gogorragoak izan dira. Hasieran eskatu zuten guztia errepikatu zuten hitzez hitz azken saioan. Han ikusitakoa ikusi eta entzundakoa entzun, nola liteke –auzipetuoi begira– keinurik txikiena ere ez egitea gureganako zelanbaiteko errukia eta gizatasuna azalduz? Ez dut eskatzen, jakina, geure askatasunaren alde egitea. Ez, noski. Keinutxo bat, itaunen bat, duda izpirik niminoena... nahikoa izango zitzaidan beren gizasentiberatasunaz jabetzeko. Zoritxarrez, ezertxo ere ez! Egia eta zuzentasunaren bila aritzeak ez al du, bada, horrenbeste merezi?

Zaila egiten zait oso elkarte hauen zeregina ulertzea euren politikakeria bazter utzita. ETaren biktima batzuk hartu dituzte ikurtzat eta, biktima hauek eragindako minak bultzaturik, gorrotoa eta mendekua dute, ene ustetan, helburu. Herri salaketak izan lezakeen alde ona, hemen aipatutakoek eta beste batzuek hankaz gora bota dute, perbertso bihurtu dute guztiz.

Eta azken punturaino pasa baino lehen galdera batzuk: epaia gure alde baldin bada, gu bostok libre uzten bagaituzte, zer erantzukizun izango dute elkarte bi hauek etorkizunean? Gure bidaia-gastuak eta abar ordainduko al dizkigute? Barkazioa eskatuko al digute? Jarraituko al dute holako eta antzeko salaketa latz eta larriak egiten? Denak balio ote dezake ETaren kontrako borrokan? Nork onartuko ditu holakoen salaketak? Zergatik? Noren eta zeren izenean?

2.4. Eta azken bitza: nire/gure ESKER ONA. Nori? Senide, adiskide eta lagunei lehenik; Euskal Herriko eta kanpoko milaka eta milaka herritarri bigarrenik; BABES TALDEari hirugarrenik; erakunde, alderdi politiko, sindikatu, euskalgintzako enpresa eta talde askori laugarrenik, eta aipatu ez dudan –baina ahaztu ere ez– hiri eta herri mordotako babes-talde guztiei, bereziki Madrilen epaiketa amaitu ostean afari eta giro goxoa eskaini ziguten haiei guztiei. Den-denei bihotz-bihotzez auzipetuon izenean ESKERRIK ASKO! EGUNKARIA libre!

P. S.- Lehengo batean EGUNKARIAz hizketan ari nintzela, neska gazte batek zera galdetu zidan: Atera al duzu zerbait onik, Txema, historia honetatik? Eta neuk holako zerbait erantzun nion: lehendabizi, auzipetuon arteko adiskidantzazko harremanak; bigarrenik, senide, adiskide eta lagunen gertutasuna eta berotasuna; hirugarrenik, bidegabekeriaren aurrean jende on asko dagoela, Euskal Herrian eta kanpoan, egoera irauli ezin bada, goxatzeko behinik behin prest dagoena; laugarrenik, bakoitzak bere mugak ezagutzeko aukera paregabea eta gu baino lehen antzeko egoeran aurkitu diren pertsonekin nolabaiteko solidaritza sentitzeko abagune zirragarria; eta azkenik, kristau izanik, Jesus gurutzbidean eta gurutzean iltzaturik izan nuen oso gogoan, baita hari jarraitzeko asmotan edota historian zehar mundu berria, zuzenagoa eta gizatiarragoa egiteko ahaleginetan “Kristorenak” jasan dituzten gizon-emakumeak ere, eta ez sinestekoa da Harengandik eta haiengandik “jaso” nuen barne-indarra (denok barruan daukaguna, hesiez inguraturik, norbaitek askatzen lagundu arte!) eta bakea. Hitz gutxitara laburbildu beharko banu esperientzia honek utzitako arrasto nagusia, hauxe izango litzateke: esker onez beterik utzi nau 7 urteotan bizi izandako guztiak, batez ere Jesus Jaunarenganako esker onez beterik.

Txema Auzmendi Larrarte
Loiola-Azpeitian, 2010.02.23

Presoaldia egunez egun

OTSAILAK 20-24

Madrilgo egoitzan emandako 5 eguneko zertzeladak

1/

Otsailak 20 (osteguna): Donostiako Gros auzoko LOIOLA ETXEA, Ategorrietako Kaltzada Zaharrean:

+ 01:10ean kanpoko atea irekita zuelarik, guardia zibil (g.z.) bat aritu zen tinbrez deika. Beste batzuk barruan zeuden eta neure gainera etorri zitzaizkidan etxeko atea ireki bezain pronto. Formalitate batzuk bete ondoren, etxeko guztiak jangelara bilarazi zituzten eta neroni nire gelara eraman. 01:30ak-edo ziren. Lau ordu inguru eman zituzten nire paperak eta gelako guztia miatzen. Interesik gabeko bideoak (H.I.ko lankide baten bideoa barne) eta paper zenbait hartu eta prezintatu zituzten. Epaitegiko 2 polizia eta 4zpa5 g.z. ziren. Manerak beti onak erabili zituzten. Txarrena: ni beti zutik eduki nindutela eta eskuburdinak jarrita, eta eskuak sorbalda aldean. Bukaeran gela utzi eta bainura sartzeko baimena eskatu nuen “handia eta txikia” egin behar nituela; txikia irten zen aise, handia ezinezkoa baina: baten presentziak “galerazi” baitzidan. Honek kaperara 30”ko bisitaldia egiten utzi zidan. Ondoren behera joan, galdera batzuk egin eta paper bat sinatzeko eskatu zidan polizia edo g.z. batek. Ezetz erantzun nion, neure abokatua behar nuela. Eskuak beti elkar lotuta aterarazi ninduten etxetik: 20 g.z. inguruk kalea itxita zuten 4 auto handi erabiliz.

+ 06:00 aldean Getaria kalean E. EGUNKARIAREN egoitzara joan ginen. Eskuburdinekin hemen ere ia 2 orduz: gauzak (or-

denagailuak e.a.) hartu eta eraman. Neu lekuko. Harritu egin ziren egoitza hau zenik ere ez nekielako.

+ 08:00etan-edo Madrilako bidea hartu genuen burua makur patrol (?) batean eta eskuburdinak jarrita, eskuak atzealde-
ra eramanda. Zorionez pixka bat beranduago eskuburdinak kendu eta eskuak aurrealdean ipintzen utzi zidaten. Eroso etorri nintzen 4 g.z.ekin, atzealdeko eserlekuan biren artean eserita. Elkarrikketa luzea egin genuen (4 ordukoa?) nire ondoan zetozen bi g.z.ek eta hirurok. Burua altxata baina estalita, bidea ikus ez nezan. Zeru-lurrak astindu genituen : haiek galde eta galde eta neuk erantzun, komentarioak e.a. egin eta egin. Oso era egokian izan zen dena eta neu askatasun izugarriaz mintzatu nintzen. Gai eta galdera zerrenda idatzia zutela ustedut, paper batzuen hotsa sumatu bainuen eta ez dakit guzia ez ote zuten grabatu. Gailera bat eta ura eskaini zidaten. Ezin kezatu, beraz, g.z. hauek emandako tratuz: EH, erlijioa, Euskaldunon EGUNKARIA, Herri irratia, Loiolaetxea, euskal arazoa, ETA, e.a. izan genuen mintzagai, beraiek mihitik “tiraka” neure iritzi eta usteak jaso nahian. Euren lana zen. Madrila iristean, autoaren sirena abian jarri eta jo eta fuego ailegatu ginen “gure” egoitzara, 5 egun luze eta infernukoak izan ziren haiek emandako lekura. Ordua: 13:00-edo? Gure egonaldi inkomunikatua hasieran 3 egunekoak izan behar zen.

+ Egoitzara sartu, burua makurrarazi eta begiak itxi arazita, satora eraman ninduten. Beti begiak itxita eta buru-makur hurrengo 5 egunetan: salbuespenak – gela eta komunaren barruan eta forentsea (medikua alegia) edo beste karguren bat ikustera joatean. Orduan hasi zen infernu haren ezagupen eta dastapena: Ateko gelak gogor jo eta “Begiak itxita eta paretan ondoan zutik!”entzuten zen noiznahi ni nengoen ziegan edo ingurukoetan, atek ireki edoeta ixteko kolpe latzak. Kanpoan zarata ezberdinak (gizonezko eta emakumezkoen ahotsak – baxuagoak edo ozenagoak –oihu handiak), e.a. “Neure” ziegan beste lagun bat. Berehala ezagutu nuen: Pello

Zubiria. Pena eta poza aldi berean. Ziegak 2X3X2,5 m zituen: 24 ordutan argia piztuta, espumazko koltxoia eta 2 manta. Besterik ez. Ate estu eta baxua, derrigor burumakur pasa beharrekoa. Izen batzuk entzun nituen: Arantxa (?), Otamendi (OTO aspaldiko laguna etorri zitzaidan gogora), Jon Ander (?) eta Torrealdai. Gazte bat (Jon Ander?) hasi zen oihuka: “Ai, ama, en qué jaleo me he metido...! Me vais a ostiar y como todo Cristo yo también a cantar!”. Isiltzeko esan eta g.z.ek kolperen bat ere jo zioten. Aurretik “Ez dago barkamenik!” errepikatu zuen gazteak. Ziztatu egin zuten ustea dut, erabat isildu baitzen. Handik ordu pare batera oihuka (“Epailearengana eraman!” errepikatuz) hasi arte, buruaz atean edo paretan kolpeak joz. Izugarria izan da, beldurgarri eta hunkigarria aldi berean. *Indefentsio* sentsazioa erabatekoa! Erlojurik ez, eguneko argirik ez, izara eta ohe burukorik ez, hots ikaragarriak noiznahi, begiak itxi eta burua makurtu beharra edonor gelara sartu edo norbait gelatik irtetean, arropa garbirik ez, dutxarik ez, kaleko hotsik ez.

Inpresioa: Mundutik aparte gaude inork ez dakien lekuan, guztiz defentsarik gabe, inpunitate osoz ari ziren pertsona haien aurrean. Infernua dastatzen hasia nintzen. Pello eraman eta ogitartekoa ekarri zidaten berandu samar. Osorik jan nuen, gustura. Eta gau osoa itzarririk eman nuenez, lokartu nintzen. Ate hotsak eta oihuak zirela, esnatu eta lokartu aritu nintzen gauerdia aldean gora eraman ninduten arte. Burua altxa eta begiak irekitzeko baimena eman zidaten medikuarekin egoteko. Aurpegi librea aurkitzen nuen lehenengo pertsona zen goizeko 08:00az geroztik. Berak esan zidan non geunden (Madrilen) eta eguneko zein ordua (gauerdia) zen. Minik egin ote zidaten, tratu txarrak jasan nituen, gaixorik ote nengoen e.a. galdetu zidan. Hura atsedenaldia! 5 minutu-edo igaro eta atzera infernura: “Begiak itxi! Burua makurtu!” e.a.

Lehenengo eguna: Zerutik (etxetik) infernura (g.z.en egoitzako sotora).

Oharra: Ziegako lagunarekin mintzatzea guztiz debekaturik eta sartu-irten bakoitzean lelo hau ere behin eta berriz errepi-katu ziguten.

Kezkaturik *nago baina barne-bake handiaz*.

Kontzientzia garbi-garbia dut ETArekin inoiz ez baitut inolako harreman edo bestelako zerikusirik izan eta, bestalde, Jaunaren Espiritua nigan sumatu dut (*“Zu nirekin bazaude, nor nire kontra?”*). Lagunentzat eta neure buruarentzat ere eskatu diot Jaunari bere laguntza, bere Espiritua.

(2)

Otsailak, 21 (Ostirala): Gero eta infernu beldurgarriagoan. Indefentsioa eta inpunitatea hitzek bilduko lukete ongien han bizi izandakoa, han jasandakoa.

A/ X. Oleagarekin batean

B/ Zaratak, izenak, orruak, elkarrizketa baxuak, txisteak, komuneko irteerak, ziegan zutik egon beharra ...

C/ Itaunketa izugarriak

A/ Holako batean komunera irten (“Begiak itxi! Burua makur!”) eta itzultzerakoan pertsona bat “nirean”. Zerbait eskatu edo egin zuelako, berehala ezagutu nuen: Xabier Oleaga. Beranduago hitz batzuk zuzendu zizkidan baxu-baxu: “Zer moduz zaude, Txema? Ondo?” Eta neuk: “Bai, Xabier. Hi ere ondo?” Eta berak: “Bai”. Elkarrekin emandako 4 egunetan horietan izan ziren elkarri esandako guzti-guztia. Nolako beldurra! Ez sinestekoa! Manta bana hartu eta oheko 2 izkinatan jarri gintuzten: batzuetan biak eserita, besteetan bat zutik paretara begira eta bestea ohe gainean etzanda, e.a. Bera ezarrita ikusi eta neu zutunik egoteak enbidia pixka bat sortzen zuen nire baitan: zergatik bera bai eta ni ez? Besteen jukutriaz jabetuz, nolabait sentimendu negatibo edo dena delako hura gaintitza lortu nuen.

B/ Egun osoan zehar mugimendu handia sumatu nuen so-
toan: jendearen sartu-irteerak, kolpe ikaragarriak (“X, zatoz/ha-
tor gurekin! Begiak itxi eta burua makurtu!”), oihuak, orruak,
izen berriak (Iñaki, Xabier Oleaga, Marcelo). Hura parafernalia
“ikusgarria”! Beldurra, izua gero eta barneratuagoa, alde bate-
tik, eta, bestetik barne-indar boteretsua –nolabait esan, Jauna-
ren betetasuna, Berak bakarrik ekar dezakeen betetasuna–
sentituz. “Kolpeak joz gero, tratu txarrak emanez gero, nireak
egin dik” nuen gogoan. Zorionez holakorik ez zitzaidan jazo,
egun osoko egoera eta tratua infernukoak izan arren. Nire bu-
rue oso ongi prestatu nuen etor zitzaidakeenaren aurrean:
“Emaizkidazu, Jauna, une bakoitzean hitz zuzen eta egokiak”.
Nire prestakuntza ez zen izan, honetaz, zer galdetuko ote zida-
ten asmatzen saiatu eta ondoren nik zer erantzungo irudikatu
e.a. Inola ere ez, alferrikako ahalegina iruditzen baitzitzaidan
nondik jo zezaketen imajinatzen aritzea guztiz “misteriotsua”
baitzen niretzat egoera hura eta egozten zitzaizkidan karguak!
Otartekoak eta ekarri zuten gutzia gogotik jan nuen, elikagaien
bidez ere indarra hartu nahian edo. Ura, berriz, ezer gutxi
edan nuen, ez bainuen ziegatik at zegoen komunera joan nahi
izaten, ahalik eta gutxien, umiliazio edo bexazio berri bat ez
jasatearren, joanez gero “bestelako” atentzio eta tratuak ematen
zizkiguten-eta. Batzuetan irainak bota dituzte (“¡Mecaguen tu
puta madre!” niri adibidez), besteetan mehatxuak (“Hoy tengo
ganas de calentar a alguien!”), beti umiliazio egoera etengabea.

C/ Itaunketak: Lo nengoela iratzarri ninduten. Ez dakit zer
ordu zen, ilunabar alde-edo uste dut. Gelan hitz egitea debe-
katua egoteaz gainera, elkarri begiratu ere ez genion egin
behar disgusturen (zigorren) bat jaso nahi ez bagenuen. Elka-
rren berri ez izatea nahi zuten g.z.ek. Egun honetan forentsea
goizean ikusi nuen, betiko moduan. Beti goian, ez gure ziege-
tan noski! Lo geunden Xabier eta biok ohe bakarraren gainean,
bakoitza zati erdia edo hartuz (makur-makur eginda, baina on-
do). Ateko danbatekoak eragindako sustoa gainetik kendu ezi-

nik eraman ninduten pasilo batzuetan barrena, gela hotz bateara. Sartu baino lehen Joan Mariren ahotsa entzun nuen aldameneko gela batean. Ez ninduten gora eta behera erabili; ziegak zeuden pisutik ez ginen irten.

Gelak –zegoen pertsona multzoagatik eta hitzen oihartzu-nagatik– handiagoa ematen zuen, askozaz, gure ziegak baino. Zenbat lagun? Ez dakit, 2zpa3 besterik mintzatu ez baziren ere, koadrila handi samarra (8/10?) otu zitzaidan. Begiak itxita (buruan estalkiren bat jarrita nengoela uste dut, baina ez nago seguru), pareta baten aurrean zutik –paretara begira– eta nire atzean, urruti samar, besteak. Batek besoak altxa eta paretaren kontra jartzeko esan zidan. Berehala egin nuen. Eta orduan bat hurbildu eta belarri ondoan hasi zitzaidan oso fuerte galdezka honetaz eta hartaz. Azken batean egunkari barruko ETaren morroia nor zen eta diru kontu batzuk –100 milioi pezetakoak– argitu nahian. Lehenengoaz gure artean inoiz ez zela holako inor izan esan nien behin eta berriz zenbait azalpen emanez, eta bigarrenaz neuk ez nuela hura argitzerik, baina herritarrek emandako dirua zela garbi utzi nien. Une batean –eta zenbait ahots ezberdin tartekatu zirelarik– haria zeramanak zera bota zidan –Txelisi idazteko arrazoa bere bihotz aldaketaren berri jasotzea izan zela neure alde-tik–: “¡Déjese/déjate de ostias–!” Nik orduan, barrutik irmo eta bero baina kanpotik erdi negarrez, haxe esan nion: “Apaiza naizen aldetik, nire bizitzeko zentzua eta filosofia horrela epaitzen baduzu, zer erantzungo dizut honetaz eta hartaz?” Beste une batean ere, betikoak bero-bero eginda nik gauza batzuen berri ez nuelako horrela esan zidan mehatxu gisa: “¡Déjate/Déjese de ostias y cuéntanos/cuéntenos la verdad! De lo contrario ...” Eta neuk: “Neronek bizi izandakoa egiaz kontatzeagatik hau edo bestea sufritu behar badut, onartua eta nireganatua daukat. Zuk indarrez zerbait esatera behartzen banauzu, esan egingo dizut zuk entzun nahi duzuna, ez egia baina”. (Erdarazko hitzak ziren eta askoz borobi-

lagoak. Orduan bertan jabetu nintzen ele haiek Jaunak “ipini” zizkidala mingain puntan !)

Itaunketa luze zihoan. Hasierako ordu laurdena-edo pasata, paretatik besoak jaisteko esan zidan batek. Deskantsu ederra hartu nuen!

Zutunik jarraitzera behartu ninduten eta 2 ordu (?) igaro ondoren hauxe esan nien lasai asko: “Erortzear nago horrela jarraitu behar badut. Posible al da flexio ariketa pare bat egitea eta gero zuen galdeketarekin segitzea?” Harritu-edo egin zirela iruditu zitzaidan, nire ausardiagatik. Denbora pixka bat igaro eta buru zenak-edo: “Puedes hacer las flexiones”. Eta horrela segi genuen beste tarte batean, motzagoa 1.a baino. *Nire sentimendua*: Nire egia indartsuagoa izan zela haien parafernalia guztia baino. Ez nuen lekua galdu, nerbioek ez ninduten jan eta beren jokabideak ez ninduen kikildu. Berriz ere “Jauna, handia zara!” esan beharrean aurkitzen naiz, hau guztia pasa eta gero.

Oso lasai eta bake handiaz bueltatu nintzen ziegara. Ez dakit kaka noiz egin nuen –egun honetan seguru, baina itaunketa aurretik ala ondoren ez zait gogoratzen–. Burumakur, begiak itxita sartu ninduten ziegara eta paretara ondoan zutik utzi. Ordu batzuk eman nituen postura hartan, berriz galdeketa berrira joan arte. Honetan itauntzailea beste bat izan zen, eserita ipini ninduten paretara begira eta begiak itxita. “Ona” ematen zuen eta tonu “goxuan” galdetzen zizkidan behin eta berriz aurrekoan botatako galderak, eta neuk erantzunak errepikatu eta errepikatuz jardun nintzen ezagutzen nituenak borobildu eta besteentzat erantzunik ez nuela esanez. Askoz suabegoa izan zen, eta laburragoa ere bai. Nire ustetan, nekien guztia esan niela sumatu zuten, eta kitto. Bakean utzi ninduten! Ziegako bidean batek oso goxo hitz egin zidan: “Ondo zeratu zara. Ondo portatu zara. Bihar horrelako deklarazioak eginez gero, dena ondo joango zaizu. Horrela guk eman dizugun tratu onaren

aurrean zeure esker ona erakutsiko diguzu”. Orduan ez zegoen “Hauek salatu zaituzte! Traizioa egin dizute haiengan zure uste on osoa ipini ondoren!” hitzen antzekorik. Dena zen goxotasun eta tonu amultsua.

Berriz ere, gau osoan kolpeak, zaratak, mugimenduak... Kezka? “Zer egingo bihar: deklaratu ala ez? Abogatuak argitzen ez badizkit postura baten aldekoak eta kontrakoak, ez dut deus esango”.

Lo egin, deskantsatu, pentsatu, otoitz egin (Eskerrak berriz ere Jaunari itaunketetan nire ondoan, nirekin zegoela sentitu izanagatik eta bere Espirituak nire mihia mugiarazi zuelako), hotsek iratzarri eta abar egin nuen gau hartan goizeko 05:30ak aldean ziegan nire izena entzun arte.

23an inkomunikazioaren luzapena: gaizki zegoela pentsatu nuen arren, zutik egotearen beldurrak eraginda amore eman nuen eta papera sinatu.

3

Otsailak 22 (Larunbata)

A/ Deklarazioak: eta besteek zer?

B/ Forentsea (neu igandea zelakoan!)

C/ Ziegatako eta inguruko isiltasun harrigarria

A/ Gaua nolabait igarota, alegia lo pixka bat eginez –tarteka oihuak, orruak, ate-kolpeak e.a. entzuten zirelako–, 05:30ak aldean etorri ziren nire bila: “Zutik pareta ondoan! Begiak itxi!” Sartu eta burua makurrarazita eraman ninduten gorantz, goiko pasiloetan gorputza zuzendu eta begiak irekitzeko baimena eman zidatarik. Hura arnasa hartzeko beta! Gela batera pasa eta aulki batean eserarazi ninduten, g.z. batek ordenagailua eta inprimagailua prestatzen zituen bitartean. Geroxeago beste g.z. bat –biak gazteak: 30/35 urte ingurukoak– eta “nire” ofizioko

abokatua (emakumezkoa) heldu ziren. G.z.a bestearen ondoan jarri zen, nire aurrean; abokatua, berriz, nire atzean, ikusteko aukerarik izan ez nuelarik. Formalitateak bete eta ea galdera bat egin nezakeen agertu nuen, alegia deklarazioak egin baino lehenagoko galdera, bestela deklaraziorik ez nuela egingo. Baietz esan zidan beranduago ailegaturiko g.z.ak. “Zeintzuk dira deklarazioak egiteak ala ez egiteak dituen abantailak eta desabantailak?” Galdera abokatuari zuzendu nion. Bere izena ez zidaten jakinarazi, bai ordea abokatuaren elkarteko bere zenbakia. Erantzunik ematerik ez zuela bota zidan 2. g.z.ak. Eta orduan neuk: “Orduan zertarako behar dut abokatua?” Eta ezetz borobila eman nion deklaratzeari, epailearen aurrean egingo nuelakoan halaxe erabakia bainuen aurretik, beti ere abokatuak beste zer edo zer egitea hobe nuela sinistarazten ez bazidan. Berriz ere infernura! Bidean: “Bukatu zaizkizu orain arteko pribilegioak! Gu ondo portatu gara zurekin, eta zuk holarako erantzuna eman?” Eta ziegara sartu ninduten. “Eskerrak, Jauna, ezetza emateko argia eta kemena ukan ditudalako!”. Egundoko barne-lasaitasuna eta poza nituen. Hala ere, ziegan burua bueltaka: “Zer egin ote dute Joan Marik eta besteek? Agian deklaratzeari hobe?” Egia esan, kezkek ez zuen luzaro iraun nire baitan, ez bainuen epailea aurrean egoteke deklarazioak egitearen komenentzia ikusten; alderantziz baizik. Horrela amaitu zen *Golgota hura*.

B/ 08:00ak inguruan g.z.ak atzera nire ziegan: “Pareta alde-
ra! Burua makur eta begiak itxita!” Gorantza orain ere. Zer arraio nahi zuten oraingo honetan? Goiko pasiloetara igo eta betikoa: gorputza tenteago jarri eta begiak irekitzeko baimena, noizean behin bidean beste atxiloturen batekin topo eginez geratu eta buru makur eta begiak itxita edukitzen nindutelarik segundo batzuetan. Azkenean, forentsearen aurrean: lasaitasuna eta poza hemen ere pertsona batekin mintzatzeko eta bere begiei so egiteko aukera nuelako, era guztiz normalean. Zein egun zen galdetzean –berak niri–, igandea (23a) zela erantzun

nion. Berak ezetz, 22a, larunbata zela, berak egunero etorri beharra zuela eta egun bakar bat saltazerik ez zuela. Horrela jakin nuen zer ordu zen eta asteko zein eguna ere. “Eskerrik asko. Agur”. Eta noski ziegarako bidea hartu genuen 11. aldiz. Umiliazioa bidean, umiliazioa bidean, umiliazioa nonahi eta noiznahi. Giza eskubide oinarrikoak erabat zapalduak demokraziaren izenean!

C/Kezka nagusia: Deklaratzeari uko egin izanak ekarriko al du ondorioirik? Oraindik ez naute jo. Aurrerantzean, zer? Zutik egon beharko al naiz ordu amaigabeetan ohe eta paretaren artean?

+ Larunbat arratsalde hura harrigarri egin zitzaidan, mugimendu gutxi eta isiltasun handia nagusitu baitzen inguru osoaz berandu arte. Burutik hauxe pasatu zitzaidan: Gutako norbait hil da edo haietako inor hil dute atentaturen batean! Ezin kontua argitu! Ez zidaten ezer berezirik egin eta gaua nahiko lasai eman nuen ohea Xabier lagunarekin konpartituz.

4

Otsailak 23 (igandea)

A/ Kapitainaren ikustaldia

B/ Inkomunikazioaren luzapenaren sinadura (beldurrak eragindakoa)

C/ Forentsea

A/ Giro ez-gizatiarrak bere hartan jarraitu zuen, hotsak, zarratak, ate-kolpeak e.a. askoz leunagoak baziren ere. Ziegetan ere nahiko lasai utzi gintuzten, nirekin zegoen X. Oleaga birritan-edo eraman bazuten ere.

Bi egoera berri ezagutu nituen: 1/ batetik, ziegara etorri ziren bila –atea goxo-goxo jo eta ireki– eta gora eraman ninduten betiko moduan (hitzik esateke, burumakur eta begiak itxita, nahi zuten lekuan utzi bitartean). Hango gela txiki batean

utzi ninduten bakarrik eta minutu pare bat-edo igarota gizon bat iritsi zen: 45 urte ingurukoa, paisanoz jantzia eta g.z.en kapitaina zena (bere hitzetan). Elkar agurtu ondoren berarekin mintzatzeko prest ote nengoen galdetu zidan. Neuk baietz erantzun, edonorekin berba egiteko prest egon naizela beti, printzipioz. Bere hasierako eleak: “Hauxe da nire mezua: hau guztia ez da euskararen kontrako, ETaren kontrakoa baizik” (“excusatio non petita, accusatio manifesta”?). Nongoa zen, Galiziakoa, bere ama hizkuntza, herrienganako bere begirunea e.a. aipatu zizkidan. Oso tonu oneko elkarrizketa izan zen, begietara so eginez, normaltasunez egoera oso anormalean. Bera ere kristau izanik, gu bion zeregina pertsoneri laguntzea zela bota zidan, bakoitzak bere erara: berak, adibidez, trafikoa zuzenduz, pateretako jendea bizirik jasoz e.a. Galdera bakarria egin nion: “Guri hor behean bizitzea tokatu zaigun guztiak zerikusirik badauka pertsoneri laguntzearekin?”, eta bere ihardespena: “Todo esto es una locura –es un problema económico: no tenemos dinero para mejorar el mal estado de los locales”. Kontua –pentsatu nuen– ez da dirua, baizik eta infernu hartan pertsonak tratatzeko zuzentasuna edo bidegabekeria. Kontua giza eskubideetan datza, erabat ez-errespetatuak izan direnak, lehenengo minututik amaiera arte infernu hartan.

Espero gabeko bisitaldia noiz eta zergatik suertatu zen ezin dut argitu. Igandean, goizeko orduetan (06:00etan-edo?) izan zelakoan nengoen, baina forentseak esan edo adierazi zidanez larunbatean izan zen. Larunbat iluntzean edo gauean? Ez daukat gehiago argitzerik!

2/ *Bigarren egoera beranduago etorri zen.* Berriz ere gorantz eraman ninduten eta oraingoan 2 polizia (g.z.?) –hauek denak paisanoz jantzita ibiltzen baitziren egoitza hartan– zain nituen inkomunikazioa 2 egun gehiago luzatzeko papera sina nizan. Nire erreakzioa: ez dut deus sinatuko, abokatu eta epailearen aurrean ez bada. Ondorengo pausoa: atzo deklarazioa ez huen egin eta gaur paper hau sinatzen ez badut, nolako

ondorioak? Beldurtu egin nintzen neure burua indefentsio osoan ikusten nuelako eta testua irakurrita sinatzea erabaki nuen –nahiz-eta irregularitatea(k) zegoela/zeudela “usaindu” (idatzitako data eta neuk sinatutako eguna, adibidez)- paperak luzapenarena baino ez zekarrelako, batetik, eta orduak zutik ez pasatzearen beldur nintzelako bestetik (sinadura igande goizean egin nuela uste baitut, eta luzapena astelehen gauean/astearte goizean bukatzen zen, ia 48 ordu beranduago).

Forentsearengana ere eraman ninduten (eguerdi partean segruenik) eta astelehenean “Entzutegi Nazionalera” eramango nindutela esan zidan. Eta hortaz ez nuela bere bisitarik izango. Hura bukatzen ari zenaren 1. seinalea! Baina aurrean beste egun t’erdi gelditzen zitzaidan!

5/

Otsailak 24 (Astelehena): egun “lasaia” ziega hartan emandakoa. Goizean eraman zuten Xabier Oleaga. Eta espetxera heldu arte ez nuen berriro ikusi. Ez zen ia mugimendurik izan eta eguna amaigabea egin zitzaidan, ikaragarri luze eta astuna. Une batean g.z. emakume bat (8 urteko alabatxo duena) etorri zitzaidan ziegara aurreko egunean hartutako bere nagusiarren bisitaldiaren berri jakitera. Mezuarena esan nion, eta kitto.

Barrutik indartsu, kementsu sentitu nintzen neure baitan “gauza” edo sentimendu eta erabaki batzuk oinarri hartzen zutela ikusiz. Aipa ditzadan, besteak beste, honako hauek:

Hango g.z. gizon-emakumeenganako errukia, negar egite-raino eraman ninduen. Negargarri egiten baitzitzaidan hain portaera ez-gizatiarra ikustea, beren deshumanizazio prozesuaz jabetzea:gu ezereztan gintuzten gizaki gisa eta gure giza eskubideetan, eta beraiek beraien izaera gizatiarra galduz zihoazen. Froga gisa galdera hau botako nieke (batez ere ama hari): Zure seme-alabei edo maite dituzun senide edo adiskideei kontatuko al zenieke zure lana infernu horretan zein den? Urrikalpe-

na barne-barneraino sartua nuen eta malkoak isurazten zizkidan, barnea guztiz hunkiturik nuelarik. (Irten baino lehen –aukera izanda– norbaiti nire galdera egiteko erabakia hartu nuen, tinko, baina ez nuen gauzatzerik izan. Jainkoa ere (“Jainkoa, Aberria, Erregea” g.z.en goi-leloa) tartean sartu nahi nuen sinestunak baldin baziren egindako tratu ezgizatiarra beren fe-deak sala eta gaitzets ziezaien.)

Esker ona ateratzen zitzaidan azaleko zulo txo guztietatik Jaunaren Espiritua nirekin, nire ondoan, nigan sumatu bainuen infernu hartan egondako egun guztietan: bai barne-poza eta kontsolazioa sentitzen nituelako (denbora guztian kikilduta egon arren), bai hitz zuzen eta egokiak esateko ahalmena izan nuelako, bai deklaratzeari uko egiteko balentria izan nuelako, bai X.O. eta beste lagunak –gaizki zeudela jakinda ere– neure ondoan nituelako. Barne-bizipen aberats eta hunkigarria zen han bizi izandako guztia, neuk ezer txarrrik egin gabe niri gertatutakoa.

Erabaki garrantzitsu bat hartu nuen: inolako deklaraziorik ez inongo epailearen aurrean, nire abokaturia aurrean ez badago. Arrazoia: epaile honetaz ez naiz inolaz ere fidatzen berak sarrarazi baikaitu 5 eguneko infernua, pertsona(k) txikituz, umiliatuz, bexatuz eta gure oinarriko giza eskubideak zapalduz. Eta hau guztia lege eta demokraziaren izenean! Nola liteke holako astakeria? Jesusen hitzak datozkit gogora: “¡Nido de víboras! ¡Sepulcros blanqueados!” Nola arraio hitz egin dezaket nik horrela tratatu nauen/gaituen gizonarekin, nire defendatzailea ondoan ez badut? (Hiru aldiz egun ezberdinetan “norbaitek” “EUSKO GUDARIAK” jo zuen txistuz bitan eta kantuz behin).

Otsailak 25 (Asteartea): 24tik 25erako gauean etorri zaizkigu g.z.ak ziegetara eta kanpora aterarazi gaituzte, furgoi ezberdinetan sarrarazi eta “Epaitegi Nazionalera” eramán gaituzte. Gauerdian han ginen. Nirekin batean Joan Mari Torrealdai eta Iñaki

Uria. Epaitegiko gela banatan utzi gaituzte. Gau osoan bakarrik, harrizko “aulkian” eserita eta batzuetan etzanda. Nire bila 05:30ean etorri ziren lo nengoela, seko. Iratzarri eta gora eraman ninduten epailearengana. Honekin batean 5 emakume ziren: fiskala, bere laguntzailea (?) –beranduago jakingo nuenez, epailearen idazkaria zena–, neu erdian, grabaketak egin dituen, ofiziozko abokatua eta ordenagailuan lanean ari zena. Eseri eta nire eskubideak jakinarazi zizkidan epaileak. Ondoren han zergatik nengoen ba al nekien galdetu zidan. “Gutxi gora behe-ra, baietz” erantzun nion. Eta ondoren itaun bat egin ote neza-keen esan nion epaileari, nire deklarazioak egiteko eskubideari uko egiteko arrazoa azaldu nahi nuen-eta. Baietz ihardetsi zidan, hura ere grabaturik geratuko zela. Eta horrela adierazi nion, gutxi gora bera:”Nire abokatua aurrean ez dudala ez dut deklaraziorik egin nahi, zurekin ez baitut inolako konfiantzarik: atxilotzeko agindua eman eta 5 egunez inkomunikatua izan nauzu tratu inhumano eta bexatorioa emanez, oinarriko giza eskubideak urratuz. Hau guztiau legearen izenean; ez, ordea, justiziarren izenean”. Orduan epaileak: “Jakin ezazu legediak eta demokraziak babesten nautela nire eginbidean”. Eta neuk: “Ez dakit nolako demokraziaz ari zaren, baina seguru nago justiziak/zuzentasunak ez zaituela babesten atxilotuei holako tratu inhumanoa eman diezaieten baimenduz”. “No tengo por qué discutir con Vd.”, epaileak; “Yo tampoco”, neure aldetik.

Formalitate batzuk bete ondoren, atzera lehengo gelatxora eraman ninduten. Bertan zenbait gauza idatzirik zeuden (“Denak ukatu!” euskaraz eta “USA”, besteak beste).

Goizeko 06:00ak aldean zeharo bakarrik eta patxada handiz geratu nintzen kalabozean eta otoitzean hasi nintzen: 1/ esandakoa esateko izan nuen kemenagatik, nerbioek jokaldi txarra egin bazidaten ere (batzuetan berotik hotzera pasatzean gertatu izan zaidan bezala: egundoko dardarizoa, kanpotik ia sumatzerik ez dagoena), ESKERRAK eman nizkion behin eta berriz Jaunari, 2/ beste lagunentzat eskatu nuen Es-

pirituaren argia eta kemena, eta 3/ aurrerantzean zer egin nezakeen hasi nintzen hausnartzen. Hurrengo minutuetan argi handia piztu zitzaidan barruan: bidegabekeriazko egoera hura ezin nuen isilik pasatzen utzi! Beste inork ez zuen gu pasatako 5 eguneko infernutik pasa behar, ez-eta egun bakar bat ere! Legeak babestutako jokabide bidegabe perbertso hura, gizakiak suntsitu eta umiliatu besterik egin nahi ez dituen jokabide hura, giza eskubide oinarrikoak urratzen dituen jokabidea (sistema polizial-juridikoa) salatu eta gaitzetsi beharra sentitu dut kontzientzia eragozle bihurtuz. Erabakia tinko eta irmoa da, poz izugarria ekarri didana, bihotza bor-borka jarri didana. Galdera bakarra: epaiketa egunean neuk prestatuturiko defentsa aldarrikatzeko aukera izango al dut epaigelako epaile, herritar eta hedabideen aurrean? Abokatuarekin argitu, bere laguntza onartu eta gauzak ongi prestatu behar! Neu zigor astuna “ordaintzeko” prest nago –ezer txarrik egin ez badut ere eta ETakoekin inoiz inolako harremanik izan ez badut ere–, baina nire salaketak eta gaitzespenak (alegia lege antiterrorista eta Epaitegi Nazionalarenak) oihartzuna izan behar dute bai Euskal Herrian, bai Espainiar Estatuan bai Europan. Egundoko barne-alaitasuna, izugarritzko bakea nagusitu dira nire baitan. AMEN, Jauna, eskerrik asko.

Gosari beroa ekarri didate eta gustura hartu dut kroissana eta guzti. Poliki-poliki kalabozo inguru hura jendez betetzen hasi da, euskaldunak ere tartean (euskarazko oihuak, hitzak e.a. entzun zitezkeen-eta). Bat-batean Pablo sartu dute nire ziegara, Epaitegira bere burua defenditzera etorria. Patxadan eta luze mintzatu gara honetaz eta hartaz, eta itxaropenik gabe egotetik –bere ama eta seme-alabak gertu dituela ohartzulio pixkat izatera pasa da. Idazteko eskatu dit, eta nik baietz erantzun. Zein eginkizun ederra egin dezakedana holako pertsonekin, batez ere kartzelan dauden horiekin! Berriro ere frogatu ahal izan dut pertsonekin tratatzeko “sortu” naizela, jota dauden horiei laguntzeko “heldua” nagoela. Hitz

batez: pobreekin eta pobreen artean bizitzeko parada jarri zait, bizitzan neuk inolako pausorik egiteke. Laus Deo! Garbi dut neure “bokazioa” –edo hitzez esaterik ez dudan “zera” hori– orain bete daitekeela inoiz baino hobeto. Eroaren eleztat har daitezke ene hitz hauek, baina ero baino guztiz ohar-dun naiz diodanaz. Jesusen Espirituaren arabera bizi eta eraman nahi dut egoera berri hau. Gai naizela uste dut, Bere bultzadaz. Misio bikoitza orain dudana: a/ bidegabekeria eta giza eskubideen zapalketa posible egiten duten epaile, politikari, lege eta epaitegien salaketa gardena eta gaitzespen irmoa ongi-ongi prestatzea; eta b/ nire inguruan ditudan presoak –euskaldunak zein besteak– (espainiarrak, latinamerikarrak e.a.) maitatzea eta askatasun bidean ibiltzen laguntzea. Nola? Beraiei astia emanaz, eskolak (euskara, gaztelera, alemana...) eskainiz, kapilauaren laguntzaile izanez e.a. Bide eta bidexka asko dago. Kontua bila ibiltzea izaten da. Geroxeago 2. preso soziala sartu dute. 29 urteko madrildarra (J.C.). Jatorra, umoretsua eta oso azkarra. Hau ere bere burua defenditzera etorri da, drogatik irteteko terapia-taldean ari delarik. Agian aurtan kalera dezakete. Aukera ona dauka bere bizitza aldatu eta beste norabidean jartzeko: senideen babesa eta bere neska-lagunarena ere baitauzka. Jainkoak bedeinka ditzala bi lagun hauek!

Arratsalde erdian bukatu da Epaitegikoa eta Egunkariko 9 lagun (eta ospitalean dagoen 10.a, Pello Z.) –Joan Mari, Martxelo, Luis, Fermin, Iñaki, Inma, Xabier O., Xabier A. eta neusoto del Realgo espetxe prebentibora ekarri gaituzte. Zerurako atea zabaldu zaigu, oraindik purgatorioan (?) bagaude ere. Elkarri besarkadak, maitasun hitzak e.a. Ilunabarrean 3 (Inma, Luis eta Martxelo) libre atera dira, fidantza ordaindu ondoren. Eta bihar arte geratu da gurekin Fermin.

03.02.27 (osteguna) Soto R.